

DBH4 BIOlogia-GEOlogia: "Ekosistemen oreka babestea denon helburu!"

Ezagutzak

Helburu didaktikoak	
1. Ikerketaren ondorioetan oinarrituz eta izakien herentziaren teoria eta teoria kromosomikoaren hastapenak erabiliz emaitzak kalkulatu, adierazpenak balioetsi eta formulatutako galderak erantzun eta arrazoitu.	<i>1.1. Informazio genetikoaren transmisioa azaldu du.</i>
2. Emandako euskarrietan oinarrituz eta helburuari lotutako ikerketak eginez herentziaren oinarri kimikoaren ezaugarriak eta funtzioak identifikatu eta adierazi, eta ingeniari-tza genetikoaren aplikazioei buruzko iritziak azaldu eta arrazoitu.	<i>2.1. Herentziaren oinarri kimikoaren funtzioak eta ezaugarriak identifikatu eta azaldu ditu.</i> <i>2.2. Mutazioari buruzko ezaugarriak eta eraginak identifikatu eta arrazoitu ditu.</i>
3. Emandako euskarrietan ingurumen-faktoreak eta bizidunen arteko interakzioak identifikatu eta interpretatu, gaiari lotutako galderak erantzun, eta emandako adierazpenak balioetsi eta arrazoitu.	<i>3.1. Ingurumenean eta organismoengan eragina duten faktore ekologikoak eta horien ezaugarriak identifikatu eta arrazoitu ditu.</i> <i>3.2. Organismoen arteko interakzioak identifikatu eta azaldu ditu.</i>
4. Egitura trofikoetan, energia-fluxuak eta materiaren zikloari buruzko ikerketa eta esperimendazioa eginez gaiarekin lotutako ezaugarriak azaldu eta formulatzen diren galderak erantzun eta arrazoitu.	<i>4.1. Egitura trofikoak eta horiei lotutako ezaugarriak identifikatu eta azaldu ditu.</i>
5. Hainbat euskarri erabiliz ekosistemetako oreka, autorregulazioa eta degradazioari lotutako kausa ondorioak ikertu, eta oreka hori babesteko ekimenak identifikatu eta proposatu.	<i>5.1. Ekosistemen oreka eta autorregulatzeko dituzten mekanismoak azaldu ditu.</i>